

Ezpalak

JON TORNER

Xabier Erkiziak irekiko du Gasteizko Sinkro jaialdia



MUSIKA ELEKTROAKUSTIKOA eta teknologia berriak dira Gasteizko Sinkro jaialdiaren ardatzak. Xabier Erkizia artistak irekiko du bigarren edizioako

egitaraua, otsailaren 18an, Ingeniaritza Eskolan (17:30ean). Hurrengo egunean, Ensemble Aventure Freiburg talde alemaniarrek kontzertua eskainiko du Jesus Guridi Kontserbatorioan. Areto berean Ensemble Espacio Sinkro arituko da hilaren 24an, eta 26an Zuriñe Gerenabarrenak eta Danel Ibisatek *Akusma 09* kontzertua eskainiko dute. Jaialdia Juan Luis Goenaga margolariaren eta Sirius kolektiboaren proiektuak itxiko du otsailaren 28an, Artium museoan. Informazio gehiago www.sinkrofestival.com webgunean eskura dezakezue.

Sareblog webguneak irabazi du Zortzi@2008 sariketa

ZORTZI@2008 sariketan (<http://zortzi2008.teknopata.net>) parte hartu duten 338 lagunetatik, 131rentzat Sareblog euskarazko blog komertzialak sortzeko ekimena izan da euskal blogosferako 2008ko ekarpenik onena. Bigarren postuan Alegialdeko txintzarriMEDIA blog komunitatea geratu da, 114 botorekin; eta hirugarrenean Kazeta.info agerkari elektronikoa, 49 botorekin.

Oreka Tx taldeak *Nomadak Tx: Zuzenean* ikuskinzuna estreinatuko du hilaren 27an Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Igor Otxoa eta Harkaitz Martinez de San Vicente txalapartarien helburuetako bat, txalapartak munduko beste musika tresna eta ohiturekin uztarturik eskaini dezakeena "etxean ezagutaraztea" da. Euskal Herrian hainbat emanaldi eskaini ostean, ikuskinzuna Alemanian, AEBetan, Frantzian, Katalunian eta Espainian aurkeztuko du Oreka Tx-ek.

Oiasso Irungo erromatar museoa 'Europako Urteko Museorik Onena 2009' sarirako izendatu du European Museum Forum fundazioak. Irabazlearen izena maiatzaren 9an jakinaraziko dute Bur-san (Turkia). Orotara 37 museo lehiatuko dira.

Jose Manuel Ciria margolariaren (Manchester, 1960) eta Jose Zugasti eskultorearen (Eibar, 1952) obrak bildu dituzte hilaren 13an Donostiako Kubo-Kutxa aretoan inauguratuko duten *Ciria/Zugasti* erakusketan.



Musikenek Pablo Sorozabalen (Donostia, 1897 - Madril, 1988) *Juan Jose* opera estreinatuko du otsailaren 21ean Donostiako Kursaal jauregian. Sorozabalen obra Madrilen eskainiko dute gero, Espainiako Musikaren Auditorium Nazionalen.

● Irati Jimenez idazleak **Aldaketa 16** aldizkarian:

«Inork idazle izan nahi badu uler dezala lehiaketa asko galdu behar direla beste zenbait irabazteko (...) Euskal literaturaren plazan agertzeko lehiaketen bidea aukeratu nuen bide garbiena iruditzen zitzaidalako. Azken batean, nik badut literatura munduan izen bat duen aita, Edorta Jimenez, eta orduan nire izena egiteko eta ez izateko Jimenez abizenaren oinordeko edo haren bantiro, lehiaketa aukeratu nuen ezagutzera emateko modu bezala. Bestalde, literaturaz bizitzea zaila delako».

● Tesa Andonegi **Goenkale** telesaileko aktoreak

Berrian: «Antzerkia egoera txarrean dago, haurrentzako lanak hobeto dabilzan arren; hor dago Pirritx eta Porrotxen arrakasta. Proiektu jakin batzuek dute arrakasta (...) Tamalez, inork ez dauka formularik jakiteko

zerk izango duen arrakasta eta zerk ez. Pausoka ekoiztetxeok *Goazen!* sortzeko garaian oso azkarrak izan ziren, tankera horretako produktuak arrakasta itzela izaten ari direlako hainbat herrialdetan eta, hortaz, euskaraz ere sortzea oso ideia ona izan zen».

● Gontzal Agote Nafarroako Bertsozale Elkarteko

koordinatzaileak Deian: «Iazkoaren ostean, bertsolariet iritzi zioten, aukera polita izan zitekeela aurtengoan [hasieratik lehiatzen]. Azkenean Nafarroako Bertsolari Txapelketa da Nafarroako bertsolarietaz urtean zehar duen plazarik handiena. Hori dela eta, batzuk final aurrekoetan eta finalean bakarrik aritzen ziren, eta txapelketa gehiago aprobetxatzeko modua izan zitekeela hau erabaki zuten. Bestalde, toki gehiagotara iristeko modua ere ematen zuten».

Abararak

MIKEL GARCIA

Aberats izan nahi duzu?

Slumdog Millionaire. Zuzendaria: Danny Boyle.
Gidoia: Simon Beaufoy. Aktoreak: Dev Patel, Freida Pinto, Anil Kapoor, Irrfan Khan. AEB. 120 minutu.

ERANTZUN orduan ondorengo galderari: 10 Oscarretarako izendatuta dagoen "faveletako zakur aberatsak" hauetako zein sari eramango du?

A) Film onenarena. Istorio orijinala da Indiako gune txiroenetan hezi den Jamal Malik protagonista-rena. Telebistako lehiaketa batean azken lau aukeren artean asmatuz gero, 20 milioi errupia irabazteko zorian da –jeniala Carlos Sobera aurkezle bilbotarraren bertsio indiarra–. Baina lehiaketa aitzakia baino ez da, miseria gordinean bizi diren bi anaiek aurrera nola egin duten kontatzeko. Indiako poliziak ez du sinesen analfabeto batek erantzun guztiak asma ditzakeenik. Iruzurra egin al du Malikek?

B) Zuzendari onenarena. Danny Boyle ingelesaren azken lana ez da 1996an zuzendu zuen *Trainspotting* bezain lotsagabea eta ausarta, baina maisuki goberna-

tu ditu flashback-ak, istorioan atzera eta aurrera modu naturalean darama ikuslea, interesa mantenduz, adar anitzek enbor berean bat egin arte.

C) Gidoi egokitu onenarena. Burutik behera kakaztuta bere ametsa lortu duen umea, eskale lanetan diru gehiago eman diezaieten haurrak itsu uzten dituen nagusia, umetatik ernaldutako amodio istorioa... telebista lehiaketako galdera-erantzunekin lotzeak zaila ematen duen arren, modu txukunean egin du Beaufoyk. Pena hain modu erraz eta sinesgaitzean bukatzeari pelikula.

D) Aurreko denak. Zergatik ez? Publikoaren eta kritikaren arrakasta lortu du, sari ugari jaso ditu dagoeneko eta Hollywooden gustuko amaiera du, musu eta guzti. Dena den, ez altxa azkarregi besaulkitik, Bollywoodi keinu xelebrea egiten baitio filmak zineko argiak piztu ostean.



Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"
mahai-jolasa



"888 txiste"
liburua



"Txoriak txori"
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

argia